

Aldundiak eta udalak bertan kontsumitzera eta lurraldea ezagutzera animatzen dituzte herritarrak Araba suspertzeko

"Orain, irten zaitezkeenez, geratu" kanpaina jarri dute abian

Cristina González: "Urrutira begiratzeko joera dugu, baina kalitatezko turismo esperientziak ditugu etxetik oso gertu"

Maidier Etxebarria: "Saltoki txikien konpromisoa eta ahalegina ekintzen bidez aitortzeko ordua da"

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 8a. Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak lurraldeko ekonomia suspertzen laguntzeko eskatu diete arabarrei eta, horretarako, bertako saltokietan eta ostalaritza lokaletan kontsumitzera eta probintziako erakargarri turistikoak ezagutzera gonbidatu dituzte herritarrak. "Orain, irten zaitezkeenez, geratu" da Araban gozatzeko eta erosteko eta Araba ezagutzeko gonbita egiten duen kanpainaren goiburua.

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Saileko diputatu Cristina Gonzálezek eta lehenengo alkateorde eta Ekonomia Sustapenaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi Maidier Etxebarriak azaldu dutenez, kanpaina honek dei egiten die herritarrei Gasteizko eta Arabako merkataritza, gastronomia eta aisia eskaintza kalitatezkoa ezagutu, aintzat hartu eta baliatzera, eta, era horretan, jarduera ekonomikoa bultzatzera. Eta bat datoz biak: orain, inoiz baino gehiago, hurbilen duguna estimatu eta zaindu behar dugu.

"Batuetan, urrutira begiratzeko joera dugu oporrez edo aisialdiaz gozatzeko tokiak bilatzen ditugunean, eta ez gara konturatzen esku-eskura ditugula turismo esperientzia berezi eta erakargarriak. Horregatik, Arabako eskualdeetako txoko zoragarriak eta esperientzia paregabeak ezagutzeko gonbita egiten dizuet guztioi", adierazi du Cristina Gonzálezek.

Maidar Etxebarriak gogorarazi du saltoki txikiek, tabernek eta jatetxeek atek ireki dituztela berriz egunotan, denon osasuna babesteko ia hiru hilabetez itxita egon ostean, eta honako hau nabarmendu du: "orain da garaia ekintzen bidez aitortzeko haien konpromisoa eta ahalegina; orain da gure auzoetako dendetan eta Gasteizko eta Arabako ostalaritza establezimenduetan kontsumitzeko garaia".

Kanpaina integrala

Kanpaina duela bi aste jarri zuten abian: Gasteizko eta Arabako beste leku batzuetako kale eta plazetan (besteak beste, Laudion, Agurainen eta Guardian) tamaina handiko kartelak eta biniloak jarri zituzten hainbat euskarritan, eta horietan "Geratu" hitza agertzen zen. Lehen fase horren helburua zen harridura, interesa eta are nahasmena ere piztea; izan ere, une hartan hasi berria zen deseskalatzea.

Gaurtik aurrera, abian jarriko da kanpainaren bigarren fasea: kaleetako euskarri berberetan, hiriko autobusetan, sare sozialetan eta komunikabideetan kanpainaren mezu osoa agertuko da: "Orain, irten zaitezkeenez, geratu" Araban, erosi bertako saltokietan, gozatu bertako taberna eta jatetxeek, ezagutu bertako eskualdeetako erakargarri turistikoak eta, azken finean, suspertu ezazu lurraldea.

Mezu horiekin batera, argazkiak ere jarriko dituzte: saltokiak, bertako produktuak, jendea Andra Maria Zuriaren plazako kafetegi bateko terrazan aperitiboaz gozaten eta txirrindulari bat Arabako Errioxako mahastien artean. Osagai horiek beraiek eta beste batzuk agertzen dira hurrengo asteetan sare sozialetan zabalduko duten sustapen bideoan, zeina #geratuaraban traolarekin batera zabalduko baita.

"Kontuan hartu behar dugu hartzen ditugun erabakien bitartez eragile aktiboak izan gaitezkeela eta Arabako ekonomia bultzatzen lagundu une zail hauetan. Gure saltokietan eta ostalaritza lokaletan kontsumitzeak eta Gasteizko eta Arabako baliabide turistikoez gozatzeko kalitatezko eskaintza eskuratzea bermatzen digu eta, gainera, gure familien, lagunaren eta ezagunen lanean eta etorkizunean inbertituko dugu", baieztatu du Cristina Gonzálezek.